

GOBERNAMENDU ESPARRUA

Gobernamendu sistemak, programaren baitan lehenetsitako proiektuak bultzatu, garatu eta jarraitzeaz gain, Euskadiko pertsonen elikadura hobetzeko instituzio, erakunde eta eragile desberdinen atxikimendua eta konpromiso partekatua ahalbidetuko du.

1. Organo Betearazlea

Osasun Saileko (Osasun Publiko eta Adikzioak); Hezkuntza Saileko; Garapena eta Azpiegiturak Saileko (Industria eta Nekazaritza lan arloak); Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa Saileko (Merkataritza lan arloa); Osalaneko eta Osakidetzako ordezkariak osatutako batzordea.

Urtean behin bilduko da jarduera lerro orokorrak ezartzeko eta garatutako ekintzen inguruko informazioa jasotzeko.

2. Parte-hartze foroa

Kontsulta eta parte-hartze organoa da. Euskadiko elikadura osasungarriaren alde lan egiteko interesa daukaten eragileek arteko elkarrizketa eta eztabaida bideratzeko ezartzen da.

Bere funtzioak honako hauek dira: a) elikadura osasungarriaren eta programaren inplementazioaren inguruko gaietan aholkua eman; b) txostenak edo proposamenak igorri; eta c) programaren garapenean suertatu daitezkeen arazo edo beharrei erantzuna emateko aukera, konponbide edo alternatiba desberdinak proposatu eta Organo Betearazleari luzatu. Talde honek adostutako akordioak organo erabakitzaileari azalduko zaizkio honek hauen inguruan hausnartu dezan.

Talde honetan programaren proiektu zehatzekin bat datozen erakunde pribatuek, instituzio publikoek, herriko erakundeek, pertsona adituek zein eragileek parte har dezakete.

3. Euskadiko Elikadura Osasungarriako Ekimenekiko atxikimendua



Herritarren osasuna hobetzeko elikadura osasungarriarekiko konpromisoa lan instituzional soilaz haratago doa. Pertsonen bizitzan garrantzia duten eragileen, edo modu batean edo bestean elikadurarekin erlazionatuta dauden eragileen sarearen ardura ere bada. Erantzukizun konpromiso boluntario baten sinatzea proposatzen da, sinatzaileek elikadura osasungarria norbere kompetentzia arlotik bultzatu dezaten. Atxikimendu hau, hortaz, instituzio, erakunde, enpresa, ostalaritza establezimendu, irabazi asmorik gabeko erakundeak eta herritarren osasuna hobetzeko interesa izan dezakeen beste edozein talderi irekia da.

Atxikimendua sinatzeak berekin dakar Euskadiko Elikadura Osasungarriako ekimenei dagokien konpromisoak onartzea eta nork bere gain hartzea.

4. Kudeaketa unitatea

Osasun Publiko eta Adikzioen Saileko pertsonal teknikoak osatuta, programaren abiaraztea, dinamizazioa, garapena, ebaluazioa eta jarraitpena koordinatuko du. Organo Betearazleak hartzen dituen erabakien eta Euskadiko Elikadura Osasungarriako Ekimenekiko atxikimenduekin zerikusia duten kontuen kudeaketaz arduratuko da.

Unitate teknikoak beharrezkoak deritzon behar beste batzorde eta lan-talde sortu ditzake.



KUDEAKETA UNITATEA

BATZORDE EDO LAN-TALDEAK

- 1. PROIEKTUA
- 2. PROIEKTUA
- 3. PROIEKTUA
- 4. PROIEKTUA
- 5. PROIEKTUA

LANGILE TEKNIKOAK (STAFF-A)

- KOORDINAZIOA
- DINAMIZAZIOA
- ERRESONANTZIA
- JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA